

Informazio guztia zentzumenen bitartez jasotzen dela dio Pello Lizarraldek, eta norabide berean eraiki du bere unibertso literarioa. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

Mutur bat muturrean

«Elur bustia»-n erortzen ari den gizon baten ibilbide laburra marraztu du Pello Lizarraldek. Krisi ekonomikoaren baitatik harago, muturreko egoera pertsonalera ere jo du idazleak zentzumenen zidorretatik aurrera eginez. Atzean utzitako etxera itzultzea izango du ordoki urruneko argipeko helburu, falta duen babesa bertan aurkituko duelakoan.

Ariane KAMIO | **DONOSTIA**

Muturreko egoeraren muturrean abiatu du bere azken lana Pello Lizarraldek (Zumarraga, 1956). "Elur bustia"-n (Erein) gainbeherara doa, bide hori egin du trazu narratiboan, eta hitzei baino, zentzumenei eman die, ohi bezala, zidorretatik abiatzeko baimena.

Ramiro egin du protagonista. Industrialde batean dago, ezohiko bero sapa dagoen egunean. Zain dago, ea lanik edo zereginik inondik lortzen duen. Krisi ekonomikoa pairatzen ari den gizasemea da, are, egungo sistema ekonomiko eta sozialaren baitatik urruntzen eta, aldi berean, erortzen ari den banakoaren historiaduna. Paisaian urtzen den pertsonaia. Bakardadearen baitako, jasotzen duen babes bakarra egiten duen telefono dei batean dago. Antza, beste muturrean bada sosegurako ahots bat.

«'Elur bustia'-n erortzen ari den gizon baten ibilbide laburra dago. Marra mehar ikusezin baten paraleloan doan bide bati jarraitzen dio. Ederki daki zer dagoen marra horren bestaldean, eta ez luke zeharkatu nahi. Gizon horren arazoa berehalakoa da, begien aurrean du etengabe eta bere obsesioa biharamuna da, jakinda, gainera, ez dagoela bakarrik, orain bakarrik dabilen arren», azaldu zuen egileak atzo, lagunez inguratuta egindako aurkezpenean –han ziren Ramon Saizarbitoria, Xabier Olarra eta Juan Garzia idazleak, besteak beste–.

Iruñeko Parte Zaharrean egunero ikusten dituen eskaleez aritu zen, eta egiten die erreferentziarik liburuan. «Ni bezalako burges txiki bati batzuetan zaila bazaio ere, jakitun naiz erori diren horiek gure artean daudela. Orain dela ez hainbeste gu bezala edo antzera zebiltzan, amildegi ertzetik aparte samar edo tirriki-tarraka, baina tente», ohartarazi zuen. Irudi bat oinarri zuela eta galderaz kargaturik abiatu zen nobela labur horretan Pello Lizarralde eta, dioenez, «beti bezala», erantzunik gabe iritsi da bukaerara, «beharbada galderaren helburua ez delako zein den gizaki horren arazoaren zergatia aurkitzea».

Bere iritziz, nekezagoa da antzematea zer dabilen jiraka estuasunaren aurrean berehala erantzutera behartuta dagoenaren gogoan. «Guk badugu kalkuluak egiteko aukera, hilabete batzuk barru zerbait egiteko proiekzioa, baina oso estu dabilenak ezin du horrelakorik egin. Oso erreakzio primarioa dute, nola eutsi hurrengo egunari, hori da haien mehatxua».

Hala bizi behar dutenen egunerokoak galdera batekin jo zuen bere gogoa: noiz arte eutsi ahal izango dio? «Harritu egiten nau etengabeko ataketatik orbainez beterik atera eta jarraitzeko kemena duena ikusteak. 'Hik ere egingo huke', esan izan didate batzuek horretaz jardun dugunean. Ni ez nago hain seguru. Ahulak gara eta hautsi egiten gara. Gutxiago al da ihes egiteko tentaldia duena edo errenditu dena?», bota zuen.

IZENIK GABE

«Ez zait izen zehatzak ematea gustatzen. Gustatzen zait Modianok nola irukidatzen duen Paris. Hala ere, jendeak asmatzen ditu askotan. Lekuetako puskak hartzen ditu eta errealitate sinesgarri bat egin nahi nuke».

Etxea

Ramirok, baina, –agian Lizarralderen beste liburuetan ez bezala– badu helbururik; «ordoki urruneko argipean zain dituen senideen artera bildu nahi duela, han izango duela babesa, han sosegu apur bat». Eta hortik sortu zitzaion azken galdera bat egileari: «Senideen eta jaioterriko adiskideek ematen dizkiguten atsedena eta sostengua ez al dira eragiten diguten zamaren eta pesalunbrearen neurri berekoak?».

Etxearen irudiaz ari da idazlea, bere esanahi fisikoaz gain, sinbolikoaz ere, eta hark sor dezakeen ongizateaz, baita zamaz ere. «Etxearen mitoak indar handia du oraindik –argudiatu zuen–. Beste babesik ez zutenek babesa etxean aurkitu dutela esan ohi da. Baina etxea zama ere bada eta kondena ere izan daiteke». Protagonistaren kasuan bezala, «etxea uzten duenak eta etxea ahaztu duenak badu kondena bat betiko, ez diola erantzun erantzun beharrekoari».

Baina Ramirok ez du horretaz gogoeta egiteko tarterik. Bero dago itxita dagoen industrialde horretan eta gizonak bidean aurrera egitea besterik ez du, etxe baten irudi lausotu hura helburu.